

219. ALDIZKARIA - 2011ko azaroaren 4a

ANTSOAIN

Antsoaingo Udalaren diru-laguntzetarako deialdi publikoaren oinarriak, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2011n

Antsoaingo Udalaren Gobernu Batzarrak erabaki zuen, 2011ko urriaren 26an, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2011ko diru-laguntzetarako deialdi publikoaren oinarriak onestea.

Oinarrien xedea: garapen bidean diren herrialdeetan gauzatuko diren proiektuak kofinantzatzea. Proiektu horien helburua izan da tokian tokiko giza garapena sustatzea hainbat arlotan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa eta landako edo hirietako komunitateen onerako diren azpiegiturak, komunitateek eta haien ordezkariak zuzeneko parte hartzea dutelarik proposatze, kudeatze eta gauzatze lanetan eta, orobat, arreta berezia ematen dietelarik ingurumenaren gaineko eraginari eta baliabide naturalen erabilera iraunkorrari.

Lehentasunez jarduteko eremuak hauek dira deialdi honetan:

-Haurren giza garapena eta garapen soziala bultzatzeko proiektuak, honako alor hauetakoak: osasuna, prebentzioa eta heziketa.

-Familiaren eta, batez ere, emakumearen aldeko sustapen eta garapen proiektuak, haren bizi baldintzak hobetu eta haren eskubideak zein aukerak sustatzeko direnak.

Esleitzeko modua: deialdi publikoa.

Gehienez ere aurreikusitako zenbatekoa: 64.000 euro, Antsoaingo Udaleko gastuen aurrekontuko 1-4621-48203 kontu-sailaren kontura finantzatzeko direnak.

Oinarriak hartzeko tokia: Antsoaingo Udalaren Erregistro Orokorra, Udaletxeko plaza, 1; edo Udalaren egoitza elektronikoren bidez: www.ansoain.es.

Eskabideak aurkezteko epea: hogeita hamar egun naturaleko epea egonen da deialdi publiko hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren egoitza elektronikoa eta Antsoaingo Udalaren iragarki ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Antsoainen, 2011ko urriaren 26an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L1117510